



Zibererasoari aurre egiteko dekalogoia

Eusko Jaurlaritzaren "Ziberbullying-kasuetan ikastetxeetan jarduteko protokoloa"

- 1 Eskatu laguntza** zure aita edo amari edota, gurasorik ezean, konfiantzazko beste pertsona heldu bati, oso lagungarri izango zaizu. Ziurtatu pertsona horrek ezagutzen eta ulertzen dituela jarraibide hauek, biok bide beretik jotzeko eta bere babestu nahia zuen aurkako ez bihurtzeko. Kasua larria denean kalte handia eragiten ari delako edota mehatxu larriak dituelako, salaketa jartzera joan beharko litzateke.
- 2 Inoiz ez erantzun probokazioei.** Hori egiteak ez dizu ezertan laguntzen eta, alabaina, estimulua eta abantaila da biktima bihurtzen zaituztenentzat. Hartu lasai eta ez jokatu inoiz ere neurrigabekeriaz edo oldartsu.
- 3 Ez jokatu harrokeriaz.** Baliteke ez zirkunstantziak, eta ez inplikatuak ematen duten pertsonak, diruditena ez izatea. Utzi tarte bat arrazoizko zalantzarako; izan ere, oinarri okerren gain jarduteak areagotu baititzake arazoak.
- 4 Saiatu erasotzen zaituzten tokiak saihesten** ahal den neurrian, harik eta egoera argitzen joan arte. Sare sozialak edo on-line elkarteak badira, ez zaizu zail gertatuko. Jazarpena sakelako bidez etortzen bada, proba dezakezu zenbakia aldatuta.
- 5 Babestu zure pribatutasuna.** Zenbat eta gehiago jakiten den zutaz, orduan eta anitzagoa eta indartsuagoa da egin diezazuketen kaltea. Imajinatzen duzu barregarri uzten zaituen gezur bat, benetako datu pribatuekin eraikia, zure horman idatzita?, zer gertatuko litzateke norbaitek, zu izango bazina bezala, zure adiskideei errespetua galduko balie? Beraz, bada garaia zure on-line bizitza ixteko konfiantza osokoak ez diren pertsoneri.
Horretarako:
 - a. Egizu zure ekipoaren azterketa sakona, jazarpena egiten dizunari abantailak eman ahal dizkion software maltzurra (troiarak, Spywarea) ez daukazula ziurtatzeko. Doaneko tresnak dituzu horretarako www.osi.es helbidean. Garrantzitsua da. Behin hau eginda, oso erabilgarri izan daitezke segidako pausoak.
 - b. Aldatu, aldi behin, erabiltzen dituzun zerbitzuetarako sarbide-gakoak.
 - c. Berrikusi eta murriztu, bai sare sozialetan (edo on-lineko beste ingurune sozial batzuetan) gehituta dituzun kontaktuen zerrenda, eta baita pribatutasun-aukera konfiguratuak ere.
 - d. Egiaztatu zer informazio (zuk edo beste pertsona batzuek argitaratua) dagoen eskuragarri on-line eta ahalegindu ezabatzen, zuri kalte egiteko erabil daitekeela uste baduzu.
- 6 Denbora guztian, gorde jazarpenaren frogak,** edozein jazarpen-mota dela ere, zuretzat lagungarri izan daitezke eta. Saiatu ezagutzen edo ziurtatzen jazarpena egiten dizutenen identitatea, baina, beti ere, inoren eskubideak urratu gabe.
- 7 Ahalegindu erasotzaileei jakinarazten egiten ari direnak molestatu egiten zaituela** eta eskatu beraiei, erasokortasunik gabe, egiteari uzteko. Gogoratu ez dituzula gertaerak edo pertsonak aurretik ziurtat jo behar zure komunikazioan; beraz, oso ongi neurtu behar duzu nola egin, inor jendaurrean seinlatu gabe, baina, aldi berean, inplikaturako pertsonari edo pertsoneri jakinaraziz.
- 8 Jazarpenak jarraitzen badu, ahal baduzu, berriro, saiatu jakinarazten egiten ari direna legez zigortu daitekeela.** Iradoki zenbait webgune bisitatzeko, esate baterako, www.e-legales.net edo www.ciberbullying.net, eurek egiaztatu dezaten.
- 9 Hala eta guztiz ere jazarpenak jarraituz gero, argi utzi behar duzu salaketa egiteko prest zaudela** nahikoa frogatuzulako gordeta hasieratik eta badakizulako nola eta non aurkeztu. Adierazi behar diozu, jazarpenak jarraitzen badu, polizia-erengana jo beharko duzula.
- 10 Puntu honetara iritsita, jazarpen-egoera amaitu ez bada, hartu legezko neurriak.**



Prebentziorako jarraibideak

Pasahitza:

- * Gogoratzen erraza eta asmatzen zaila.
- * Ez eman inori.
- * Aldatu pasahitza 6 hilabetean behin.
- * Pasahitz desberdinak erabili webgune, mail... desberdinetarako.
- * Ordenagailua erabili behar ez duzunean, itxi sare sozialetako, maileko... saioak

Gailuen, sakelakoen, ordenagailuen, tableten... segurtasuna

- * Birusen kontrakoa aktibatuta izan beti.
- * Eguneratu programen eta eragileen bertsioak.
- * Ez ireki SPAM diren edo susmagarri gertatzen zaizun artxiborik.
- * Ez badakizu gailu bat segurua den, ez gorde bertan besteek ikustea edo ezagutzea nahi ez duzun informaziorik.
- * Internet duen sakelakoa baduzu, deskonektatu geolokalizazio-aukera, sakelakotik zerbait argitaratzean, inork jakin ez dezan non zauden.
- * Kontuz web cam-ekin, zu konturatu gabe birus batzuek aktiba ditzakete, eduki itzalita erabili behar ez duzunean eta, beharrezkoa bada, estali ziurtatzeko.

Zuri buruzko informazioa:

- * Ez argitaratu datu pertsonal asko (telefonoa, helbidea...)
- * Kontuz argitaratzen dituzun argazkiekin, bideoekin, muntaiekin..., behin argitaratuta, eurekiko kontrola galdu egingo duzu.
- * Erabili izengoitiak edo nick pertsonalak Interneten zehar ibiltzeko, zure bizitzako segurtasunari eragingo ez dion benetako identitate digitala izan dezan.
- * Profil sozial bat egitean, konfiguratu behar bezala pribatutasuna, argitaratzen duzun edukia zure lagunek soilik ikus dezaten.
- * Ez amore eman xantaiaren edo presioaren aurrean. Lagunen edo ezezagunen eskaerak jasotzen badituzu irudi edo bideo bat bidaltzeko esanez eta zuk nahi ez baduzu, ez egin eta jakinarazi pertsona heldu bati.

Beste pertsona batzuei buruzko informazioa:

- * Ez argitaratu, ez esan gauza iraingarririk, saminik edo umilgarririk. Hau eduki publiko bihur daiteke eta idatzita geratuko da eta ezin duzu ezabatu. Ez egin inori zuri egitea nahi ez duzunik.
- * Ez eman beste pertsona batzuen daturik, ez argitaratu argazkirik, bideorik... bere onarpenik gabe.

Ezezagunak:

- * Ez onartu, ez gehitu ezezagunen kontakturik. Ziurtatu ezagutzen dituzula lagun gisa gehitu aurretik.
- * Ez bidali irudi edo bideorik ezagutzen ez dituzun edo konfiantza eza sortzen dizuten erabiltzaileei.

Ez izan sexting edo ziberbullyingaren partaide: ez sortuz, ez herbidaliz, ez bultzatuz.

Esan gurasoei edota heldu arduradunen bati.

Arrisku egoeran zaudela uste duzun unean edo beste pertsona batzuek sexu-erako zerbait eskatzen badizute, esaiozu.

Jakinarazi helduei pertsona batzuek beste lagun batzuei kalte egiten dieten egoerak ezagutzen badituzu, laguntza behar dute eta.